



Euskaltelen Akziodunen Batzar Orokorrak berretsi egin du enpresaren kudeaketa, eta izendapen berriak onartu

- *Berretsi egin du Batzarrak konpainiaren estrategia: akziodunarentzat balioa sortzea, erabakiak hartzeko independentzia oinarri duen gobernu-ereduari eustea, eta ekonomia berrira, digitalera, egokitzea.*
- *Bestalde, konpainiako presidente Alberto García Erauzkin kontseilari exekutibo kargurako hautatu du berriro Batzarrak, eta kontseilari independentetarako José Ángel Corres presidenteordea.*
- *Beste izendapen hauek ere onartu ditu Batzar Orokorrak: Alicia Vivanco, Kartera 1 SLren ordezkaria, kontseilari ahaldun, eta kontseilari independente Elisabetta Castiglioni eta Miguel Ángel Lujua.*
- *Francisco Arteche, berriz, kontseilari exekutibo kargurako onartu du Batzar Orokorrak, eta kontseilari delegatu izendatuko du administrazio-kontseiluak hurrengo bileran, datorren uztailen*
- *Lehenbiziko Ohiko Batzar Orokorra izan du gaurkoa Euskaltelek burtsara atera zenetik, duela urtebete.*
- *Egun, nagusi da Euskaltel Euskadiko eta Galiziako telekomunikazio-zerbitzu guztietan: telefonia finkoa eta mugikorra, banda zabala eta ordainpeko telebista.*

Bilbon, 2016ko ekainaren 27an. Konpainia burtsara atera zenetik, duela urtebete, lehenbiziko Ohiko Batzar Orokorra izan du konpainiak gaur goizekoa Euskaltelek. Konpainiaren egoitzan egin da Batzarra, zeinak onartu egin baitu Euskaltelen aurreko ekitaldiko kudeaketa, eta aurkeztu diren proposamen guztiak berretsi.

Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrean egin duen hitzaldian, hau azpimarratu du Alberto García Erauzkin presidenteak: "Gure akziodunen Euskaltelen kudeaketari eman dioten onespena, 2015eko emaitza onak eta 2016ko lehen hilabeteetako

etengabeko hazkuntza oinarri hartuta". Azpimarratu du, halaber, Batzar Orokorrean aurkeztutako proposamen guztiak onartu izana, "konpainiaren estrategia baietsi egiten baitu horrek: akziodunentzat balioa sortzea, erabakiak hartzeko independentzia oinarri duen gobernu-ereduari eustea, eta ekonomia berrira, digitalera, egokitzea, gure herriarentzat aberastasuna, enplegua, garapena eta ongizatea sortzeko konpromisoari eutsiz".

Berretsi egin du Batzarrak konpainiaren estrategia: akziodunarentzat balioa sortzea, erabakiak hartzeko independentzia oinarri duen gobernu-ereduari eustea, eta ekonomia berrira, digitalera, egokitzea.

Konpainiaren estrategia-argitasuna berretsi du Euskaltel Taldearen presidentek. *"Lehenik eta behin, akziodunentzat balioa sortzea du helburu estrategia horrek, zeina bateragarria baita gure interes-talde guztien iguripenekin. Hauek dira strategiaren oinarriak: bezero gehiago eta diru-sarrera handiagoak izatea, gastu-eraginkortasuna eta ahalik eta zorroztasun handiena inbertsioei dagokienez, diru-iturriak aurkitzeko, palanka-efektua murrizteko eta akziodunei ahalik eta ordainsari handiena emateko".*

"Oinarri horiek euskarri ditugula —jarraitu du presidentek— honetan saiatu behar du gure strategiak: Euskaltelen kudeaketa-taldeko administrazio kontseiluaren eta lantalde osoaren independentzia ahalik eta handiena bermatzea erabakiei dagokienez".

"Azkenik, ekonomia digital berrira egokitu behar dugu, merkatuari eskaintzen diogun balio-proposamena etengabe hobetuz", adierazi du García Erauzkinek.

Brexitari buruzko gogoeta

Tarte bat eskaini die Alberto García Erauzkinek azken berriei ere, Brexit delakoari, alegia: *"Euskaltelen presidente naizen aldetik, Konpainiaren sendotasuna eta irmotasuna berrestea dagokit. Izan ere, lider da Euskaltel Euskadiko eta Galiziako bere merkatuetan, ratio ezin hobekak ditu errentagarritasunari eta diru-iturriak aurkitzeko ahalmenari dagokienez, eta etengabe ari da hazten eta eraldatzen, finantza-diziplinarekiko konpromisoari eutsiz. Honenbestez, gure inguruan izan daitezkeen gorabeherak direla eta, jarrera hau izan behar dute gure kudeatzaileek: konpainiaren eta haren interes-taldeen mesederako jardun behar dute, eta horretara bideratu gorabeheren ondorioak. Hori egin du Euskaltelek iraganean, arrakastaz egin ere, eta hori egiten jarraituko dugu etorkizunean ere".*

Euskaltel taldearen presidenteak adierazi duenez, *“etorkizunera begira, sendotasun handia ematen digu gure bezero-oinarriak. Leiala eta geroz eta handiagoa da oinarri hori, eta harentzat dihardu buru-belarri gure Konpainiak, merkatuari agindutako helburuak bete nahian”*. *“Horregatik —esan du—, eskerrak ematen dizkiegu gure inbertitzaileei, egungo egoera honetan eman diguten laguntza erabatekoagatik, eta dei egiten diegu parte har dezaten proiektu irmo honetan, errentagarritasun handia baitu eta akziodunarentzat balioa sortzen baitu epe luzera”*.

Euskadin dauka erabakigunea gure telekomunikazio-taldeak

García Erauzkinek gogoratu duenez, duela hogeitun urte sortu zen Euskaltel, bezeroen premiak asetzeko eta Euskadin sektoreko lider izateko. *“Urte hauetan, gauza asko aldatu dira Euskaltelen: bere sorlekutik kanpora ere hazi egin da, eta Espainiako estatuko iparraldeko operadore nagusi bihurtu; bestalde, nazioartera zabaldu du kapital-egitura, epe luzeko akziodunak bereganatuz (bertakoak, estatukoak eta nazioartekoak) baina erabakigunea Euskadin duela betiere”*.

Jakina, Euskaltelen eta R-ren bategiteaz ari zen Euskaltel Taldearen presidentea. "Lorpen historikotzat" jo du bategite hori: "Espainiako estatuko iparraldeko erreferentziatzeko operadorea sortu dugu; bost milioi biztanleko merkatua du, eta etxeko eta enpresetako 715.000 bezerori ematen die zerbitzu; diru-sarrera, berriz, 570 milioi eurokoa du, eta EBITDA, 265 milioi ingurukoa.

"Hartara, handiagoa da orain Euskaltel Taldea, eta posizio hobea du merkatuan; aldi berean, enpresa bakoitzak bere merkatuan duen indarrari eutsi egingo dio, sustrai sendoak baitituzte biek ere Euskadin eta Galizian", azaldu du taldearen presidenteak.

Gobernu korporatibo eredugarria

Administrazio-kontseiluak prestatu duen Gobernu Egokirako Kodeak *"arautzen ditu konpainiaren zuzendaritza-organoen, zuzendaritza-taldearen eta langile guztien jarduerak, eta enpresaren orainarekiko eta geroarekiko konpromiso pertsonalaren adierazle dira"*.

Kapital Sozietateen Legera eta Sozietate Kotizatuen Gobernu Egokiaren azken gomendioetara egokitu ditu Euskaltelek bere estatutuak eta administrazio-organoen barne-funtzionamendurako arauak.

Sozietate kotizatuen jardunbide onenetara egokitu du bere egitura Euskaltelek, eta Gobernu Egokiaren nazioarteko estandar zorrotzenak betetzeko konpromisoa berretsi. *"Alor horri dagokionez, hau du oinarri gure estrategiak: Euskaltelen*

administrazio kontseiluaren, kudeaketa-taldearen eta lantalde osoaren independentzia ahalik eta handiena bermatzen duen gobernu-sistema bat izatea korporazioak".

Arriskuak Kudeatzeko Sistema bat ezarri du Euskaltelek, eta delituak prebenitzeko sistemetarako AENOREk, Espainiako Normalizazio eta Ziurtapen Elkarteak, ematen duen ziurtagiria jaso duen lehena da Euskadiko enpresen artetik, bai eta Espainiako estatuko telekomunikazio-sektore osokoen artetik ere. Alberto García Erauzkinek adierazi duenez, *"kudeaketa-sistema hori ezarrita, beste aurrerapauso bat eman du Euskaltelek kultura etiko bat bultzatzeko bidean, eta are tinkoago dihardugu gobernu egokiaren eta arriskuen kudeaketaren alde, horiek baitira negozioaren iraunkortasuna bermatzeko lehen urratsak".*

2015eko kontuen onespina eta 2016ko hazkundera

Euskaltel Taldearen Akziodunen batzar Orokorrak onartu egin ditu Euskaltel Taldearen 2015eko ekitaldiko kontuak. Urte historikoa izan zuen iazkoa Euskaltel Taldeak: % 8,8ko hazkunde bateratua diru-sarrerei dagokionez —349,4 milioi euro—, areagotu egin baitu telefonia mugikorrean zeukan lidergoa; horrez gain, hazi egin da banda zabalean eta ordainpeko telebistan.

EBITDA bateratua 167 milioi eurora iritsi zen (% 7,1eko igoera); emaitza doitu bateratua, berriz, 49,6 milioi euro izan zen, aurreko ekitaldikoa baino % 16,9 handiagoa. Kaxa-fluxuaren bihurtze-ratioa % 68,2 izan zen. Aitzindari da Euskaltel, Europan, kutxa-bihurtzearen ratioari dagokionez, gure sektoreko Europako onenen parekoa baita.

2016ko lehen hilabeteetan ere oso positiboa izan da bilakaera: sendotu egin da aurreko ekitaldiko hazkunde-joera, lehen hiruhilekoko emaitzen aurkezpenean aurreratu genizuen.

Hazten jarraitzen du Euskaltel Taldeak diru-sarrera, bezero eta produktutan, bai etxeko sektorean bai negoziokoan. Berretsi egiten du hazkunde horrek merkatuak konpainiaren eragiketa korporatiboegi egin dien harrera ona, bai eta bezeroek gure konpainiaren produktu eta zerbitzuetan duten konfiantza ere.

Erreferentzia da Euskaltel, Europan, kutxa-bihurtzearen ratioari dagokionez. Hazten jarraitzen du negozio-sektore guztietan —telefonia finkoa, banda zabala, mugikorra

eta ordainpeko telebista (azken bi horiek, batez ere, hazkunde ikusgarriak ari dira izaten)—, bai eta hiruzpalau produktu kontratatzen dituzten bezeroen kopuruak ere.

Etengabeko hazkuntza hori dela eta, beste hau ere lortu du Euskaltelek: Egun, nagusi da Euskaltel Euskadiko eta Galiziako telekomunikazio-zerbitzu guztietan: telefonia finkoa eta mugikorra, banda zabala eta ordainpeko telebista.

Kontseilari berrien berrautaketa eta izendapena

Konpainiako Izendapen eta Ordainketa Batzordeak hala proposatuta, Euskaltelen presidente Alberto García Erauzkin kontseilari exekutibo kargurako hautatu du berriro Batzarraren gehiengoak, eta kontseilari independentetarako José Ángel Corres presidenteordea.

Beste izendapen hauek ere onartu ditu Batzar Orokorraren gehiengoak, Izendapen eta Ordainketa Batzordeak hala proposatuta: Alicia Vivanco, Kartera 1 SLren ordezkaria, kontseilari ahaldun, eta kontseilari independente Elisabetta Castiglioni eta Miguel Ángel Lujua.

Elisabetta Castiglioni eta Miguel Ángel Lujua kontseilari berriak aditu independenteak dira, esperientzia eta ezagutza handia dutenak telekomunikazioen eta teknologien alorrean eta pertsonen kudeaketan, hurrenez hurren.

Elisabetta Castiglionik eskarmentu handia du telekomunikazioen eta teknologien sektorean. Telekomunikazioen alorrean garatu du bere ibilbide profesionala, bai operadoreetan (MCI Worldcom), bai fabrikatzaileetan (Siemens). Gaur egun, mundu guztiko enpresa teknologikoen eta hedabideen aholkularitza-lanetan aritzen da: Telekom Austria, BBC, ITV, *New York Times*, Rai, BSKyB eta Cox, besteak beste. Siemensen, zuzendari izan da Global Media, IT Soluzioak eta Zerbitzuak sailetan. MCI Worldcomen, Estrategiako eta Sarbideko eta Interneteko Produktuen Marketineko zuzendaria izan da Europarako, Ekialde Ertainerako eta Afrikarako. Azken bost urteetan, Telekom Austriako kontseilaria izan da.

Miguel Ángel Lujua, berriz, pertsonen kudeaketan da aditua. Confebask Euskal Enpresaburuen Konfederakundeko presidentea izan da, CEOE Espainiako Enpresaburu Elkartearen Konfederazioko Batzorde Eragileko eta Zuzendaritza Batzordeko kidea, eta Innobasqueko presidenteordea. CEBEK Bizkaiko Enpresaburuen Konfederazioko Zuzendaritza Batzordeko kide ere izan da, eta Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioko presidente. Gaur egun, IMQ Taldeko kontseilari-zuzendari nagusia da. Nervaceroko Giza Baliabideen Zuzendaritzan hasi zuen ibilbide profesionala. Ardura bera izan zuen AHV-Aceralian (gaur egun Arcelor), eta Mutualiako zuzendari nagusia izan da IMQ taldean sartu aurretik.

Bestalde, kontseilari exekutibo kargurako onartu du Francisco Arteche Akziodunen Batzar Orokorra, aho batez. Maiatzaren 24an egindako bileran, aho batez erabaki

zuen Euskaltelen Administrazio Kontseiluak konpainiako Akziodunen Batzar Nagusiari proposatzea Francisco Arteche taldeko kontseilari delegatu kargurako.

Batzarrak kontseilari exekutibo kargurako onartu ondoren, uztaileko administrazio-kontseiluak izendatu behar du Francisco Arteche Euskaltel taldeko kontseilari delegatu.

Euskaltelen Administrazio Kontseiluak uste du Francisco Arteche dela profesionalik egokiena Euskaltel berme osoz gidatzeko telekomunikazioen sektorearen bilakaera markatuko duten ekonomia digitalaren erronka berrietan, eta, halaber, telekomunikazio-operadore izatetik zerbitzu digitalen operadore eta ekonomia digitalaren traktore izateko bilakaeran.

Ibilbide luzea egin du **Francisco Artechek** lehen mailako konpainia multinazional teknologikoetan, eta bereziki nabarmentzen da teknologia berrien merkatuaren eboluzioaren ikuspegi estrategikoan, lidergorako gaitasunean eta ekipoak kudeatzeko estiloan, zeina pertsonen garapen profesionalean oinarritzen baitu.

Donostiarra da Arteche, 51 urte ditu, Industria Ingeniaritzako lizentziaduna da Nafarroako Unibertsitatearen Donostiako fakultatean eta MBA Bartzelonako IESE Business Schoolen.

Ibilbide profesional luze eta emankorra du, hogeitau urte baitaramatza zuzendaritza-ardurak betez teknologiaren munduan; azken hamabi urteak, Microsoften, aplikazioetan eta softwarean munduko lider den enpresan. Euskaltelera iritsi aurretik, Microsoft Ibéricako Kontsumo Kanalen Taldeko zuzendari nagusia izan da. Hori baino lehen, Entertainment & Devices unitateko zuzendaria izan zen Europako erdialderako eta hegoalderako, eta, geroago, Europako mendebalde osorako.

Lehenago, Electronics Arts-eko (EA Software) Espainiako eta Portugalgo zuzendaria izan zen, eta zazpi urtez aritu zen lanean konpainia horretan.

Zuzendaritza Batzordeko kidea da AMETICen (informatikako, informazio-teknologietako, telekomunikazioetako eta eduki digitaletako enpresen elkarte); ICA elkarteko kidea (Administrazio Kontseilarien Institutua). Horrez gain, kontseilukide izan da ISFE elkartearen (Interactive Software Federation of Europe), AECOCen (Espainiako fabrikatzaile eta banatzaileen elkarterik handiena) eta presidente ADESE elkarte sektorialean (Espainiako Software Fabrikatzaile eta Garatzaileen Elkarte).

Konpainiako gobernu-organoen osaera berria onartu ondoren Akziodunen Batzar Nagusiak, Euskaltelen Administrazio Kontseiluko kontseilarien % 50 independenteak izango dira (10 kontseilaritik 5) eta % 30 emakumeak (10 kontseilaritik 3). Honenbestez, gobernu egokiaren alorreko nazioarteko estandar zorrotzenak betetzen ditu Euskaltelek.

Euskaltel – Komunikazioa
94-4011229
komunikazioa@euskaltel.com